

ZELULA

1. Esan egia ala gezurra diren honako esaldi hauek:

	EGIA	GEZURRA
Izaki bizidun guztiak zelulaz osatuta gaude.		
Zelulak txikiak dira baina begi-bistaz ikus daitezke.		
Zelula mota eta forma bakarra dago.		
Birusak ez dira zelula bezala kontsideratzen.		
Zelulak izaki bizidunak osatzen duten zatirik txikienak dira.		
Zelulanitzak milioika zelula dituzte bizi funtzioak egiteko.		
Zelulabakarrak modu independentean bizitzeko gai dira.		
Animaliak zelula prokariotoez osatuta daude.		
Landare batek zelula eukariotoak ditu.		
Gure ADN (informazioa) zelularen organuluan dago.		

2.- Bete hutsuneak:

PISTAK

Atal hauek ditu zelulak. Atal batzuk landare-zelulek nahiz animalia-zelulek dituzte. Beste batzuk, berriz, landare-zelulek baino ez dituzte.

Mintza

Organuluak

Zelula-pareta

Nukleoa

Kloroplastoak


Zitoplasma

Idatzi hemen biek dituzten atalak.

Idatzi hemen landare-zelulek soilik dituzten atalak.

Animalia-zelula

Landare-zelula



3.- Sartu ezaugarriak dagokion lekuan:

Zeintzuk dira zelula moten arteko desberdintasunak?

1. Animalia zelulak. →

- a.
b.
c.

2. Landare zelulak. →


- a.
b.
c.

Mintz plasmatikoa inguratzen duen zelula pareta dute.
Kloroplastoa dute (fotosintesia egiteko).
Nutrizio autotrofoa.

Mintz plasmatikoa dute inguruan, baina zelula paretarik ez.
Ez dute kloroplastorik.
Nutrizio heterotrofoa.

4.- Jarri zelularen atalak bere informazioarekin:

Zeintzuk dira zelula mota desberdinen ATALAK?



Era askotakoak daude.
Betetzen duten funtzioaren arabera.

Inguratzen duen geruza edo kapa babesten du; elikagaiak sartu eta hondakinak kanporatu.

Mintzaren eta nukleoaren artean dagoen substantzia da.

Garuna da; funtzionamendua zuzentzen du.